

## DEBAKO HONDARTZAN 2026, 2027, 2028 ETA 2029 URTEETARAKO SASOIKO ZERBITZUAK USTIATZEKO

### BAIMEN ESKAERA

Deban. 2026ko urtarrila



DEBAKO UDALA



## **Aurkibidea:**

1. AURREKARIAK .....	3
2. ARAUDIA .....	3
3. USTIATU EGINGO DIREN HONDARTZAK .....	3
4. USTIAPENAREN IRAUPENA .....	3
5. OKUPAZIO/APROBETXAMENDU MOTA.....	3
5.1.Toldo Zerbitzua .....	4
5.2. Sorospen Zerbitzua .....	4
5.3. Beste Udal zerbitzuak .....	5
6. GUZTIRA OKUPAZIOA .....	5
7. DEBAKO HONDARTZAKO ZERBITZUAK USTIATUKO DITUZTEN PERTSONEN ZERRENDA, .	6
7.1. Toldo zerbitzua .....	6
8. SASOIAN HONDARTZA USTIATZEKO HAREATZAN EGIN BEHARREKO EGOKITZAPENAK ...	7
9. ERANSKINAK .....	7
I.ERANSKINA: OKUPAZIO PLANOA .....	8
II.ERANSKINA. ARGAZKI ERREPORTAIA .....	9
III.ERANSKINA. NIBELATZE ETA EGOKITZE LANAK .....	13

## 1. AURREKARIAK

Debako hondartza urbanoa bainulariek erabiltzen dute gutxienez XIX. mendearen amaieratik.

Gaur egun, hondartzaren erabiltzaileen profila asko aldatu da eta bainua hartzeaz gain, beste motatako ekintzak burutzen dira hondartzan: sorospena, dutxak, toldoak, kirola, ...e.a. Profil horiei erantzunez, Udalak zerbitzu batzuk eskaintzen ditu, hondartzak ustiatzeko baimena lortu ondoren.

## 2. ARAUDIA

- Itsasertzei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea, eta Itsasertzaren Babes eta Erabilera Iraunkorrari buruzko maiatzaren 29ko 2/2013 Legearen arabera egindako aldaketa.
- Itsasertzaren Erregelamendu Orokorra, urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren bidez onartua, hondartzei dagokien itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilera arautzen duena, eta Udal honek interesa du 2020ko, 2021eko eta 2022ko udaldietan hondartza ustiatzen jarraitzeko.
- Debako hondartzaren erabilera erregimena eta bere aldaketa arautzen duen udal ordenantza (GAO 2022.02.16)

## 3. USTIAPENA EMANGO DEN HONDARTZAK

Ustiapena Deba udalerriko hiri-hondartzetan egingo da:

- Santiago
- Lapari edo Arnedillo

Jarduera eta okupazio gehienak Santiago hondartzan egiten diren arren, Laparin gutxieneko zerbitzuak ere instalatuko dira, hala nola dutxak eta zaborren edukiontzia.

## 4. USTIAPENAREN IRAUPENA

Lau urterako ustiapena eskatzen da, hau da, 2026, 2027, 2028 eta 2029 denboraldietarako. Ohi bezala, ekainaren 15ean hasi eta irailaren 15ean amaituko dira denboraldiak. Urteko egutegiaren arabera baliteke egun batzuk lehenago hastea eta amaitzea.

## 5. OKUPAZIO/APROBETXAMENDU MOTA

Hareatza hainbat arrazoiengatik okupatzen da: toldoen zerbitzua, dutxak, boleibol gunea, sorospen zerbitzuko etxola eta dorretxoa, irisgarritasun pasabideak... eta zaborra biltzeko edukiontzien instalazioa.

Jarraian dituzue, zehazki, hurrengo lau denboraldietarako ustiatu nahi diren zerbitzuak:

- Toldo zerbitzua
- Sorospen zerbitzua

Eta horiek Eta Udalak jarriko dituen instalakuntzak, hurrengoak dira

- 4 dutxa eta 6 oin-garbigailu instalatzea
- Boleibol-eremua (2)
- Hondartzako 6 sarbideetako pasabideak, dutxetara lotuz.
- Sorospen-instalazioak (dorretxoa) eta zaintza-etxola/sendaketak

### **5.1.Toldo Zerbitzua**

Aurreikusita dago 170 toldo jartzea, bi lerro paralelotan banatuta, itsas pasealekutik lehenengoa 35 m ingurura eta bigarrena 30 m-ra.

Bi lerroetan taldeak sortuko dira, sarbide bakoitzeko espazio bat libre utzita.

Toldo zerbitzua dagokion lizitazioaren pleguen bidez arautuko da. Zerbitzua lizitaziora ateratzeko oinarriak idazten ari dira. Oinarri horietan, instalazio-baimena jasoko da, Eusko Jaurlaritzako Portuen; Itsas Gaien eta Itsasertzaren zuzendaritzaren baimena oinarri hartuta eta haren mende, eta une oro ziurtatuko da toki-administrazioaren kontratazioari buruzko legea aplikatuko dela. Toldoen jabetza udalarena da, euren zerbitzua esleituko da.

Gehenez 170 toldo okupatzeko eskatuko da, erantsitako planoan zehaztutako banaketarekin. Kopuru hori pixka bat txikiagoa izan daiteke denboraldi bakoitzeko eskaeraren arabera, baina ez da inoiz 170 baino handiagoa izango.

Kontuan hartuta olanaren neurriak 1.35m x 2.30m direla, 3.10 m<sup>2</sup> bakoitza, eta guztira 170 toldo, guztira 527 m<sup>2</sup> hartzen dituzte.

### **5.2.– Sorospen Zerbitzua**

Udalak edo baliteke aurten Aldundiak hondartzetako sorospen zerbitzua esleitu egingo du. Lizitaziora ateratzeko oinarriak idazten ari dira gaur egun.

Hala ere, Zerbitzua era egokian emateko, hurrengo instalazioak jarriko dira hondartzan:

- Zaintza-dorrea (3.15m<sup>2</sup>)
- Egurrezko lehen laguntzetako botikin gisa, 2,40 x 6 m-koa, hondartzaren atzealdean, erdialdean. Etxola horrek ez du ur sarerako konexiorik, eta, beraz, ez da hondartzara zuzeneko edo zeharkako isurketarik egingo.
- Anfibia aulkia eta makuluak uzteko espazioa (2 x3 m), 6 m<sup>2</sup>

Guztira sorospen Zerbitzuak 23,55 m<sup>2</sup> hartuko du guztira.

### 5.3. Beste Udal zerbitzuak

**Dutxek** 2,25 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen dute. Guztira, 10 m<sup>2</sup>. Dutxen helburua da erabiltzaileen kresala eta harea kentzea. Guztiz debekatuta dago horietan beste erabilera batzuk egitea, baita xaboiak, xanpuak edo detergenteak erabiltzea ere; beraz, ez da beharrezkotzat jotzen saneamendu-sarearekin lotzea. Oinetako garbitzaileak bezala. Oinak garbitzeko 6 gune jarriko dira, bat hondartzako sarbide bakoitzean, guztiak bat izan ezik, paretatik edo pasealekuko bankadatik zintzilik. Seigarrena portuetako bankadan.

**Pasabideen** luzera aldatu egiten da batetik bestera, baina, oro har, 16m-ko 4 pasabide ditugu, eta 30 edo gehiagoko 2 (erdikoa anfibia aulkiarentzat, eta ibai aldekoa), dutxetarako 6 metroko loturarekin. Beraz, 148 m<sup>2</sup> pasabide dira guztira (gutxi gorabehera 1 m-ko zabalera).

**Kirol gunea.** 8 m linealeko boleibol-sarea, sarerako, eta markatuta egongo ez den arren, argi dago 8 x 14 metro okupatuko direla, eta horrek 112 m<sup>2</sup>-ko joko-zelaia egiten du. Bi sarek, beraz, 224 m<sup>2</sup> hartuko dituzte guztira.

**Gaikako bilketarako** uharteak, hau da zakarrontziak hareatzetatik kanpo jarriko ditu Aldundiak. 3 gune aldapadun sarreratan jarriko dira. Gainontzekoak Santiago Hondartzaren itsas pasealekuan eta Lapariko eskaileretan, hau da. Sarrerako aldapetan, 3 irlatxo osoak (errefusa, ontziak, papera eta organikoa) jarriko dira, eta gainontzekoetan, Laparikoetan ere, errefusa eta ontziak jasotzekoak. Guztira (3 x 4m<sup>2</sup>) + (2 x 1m<sup>2</sup>) eta Laparin (2 x 1m<sup>2</sup>) okupatuko dira, hau da 16 m<sup>2</sup>

Oharra: kontuan izan aldagelak, kabinak eta gainerako instalazio finakoak udalaren jabetzakoak direla, eta hondartzatik gertu dagoen Nafarroa plazako eraikinaren behealdean daudela, Itsas Lehor jabari Publikoaren eremutik kanpo. Baita, gaur egun Udalak baduela hondartzan dagoen tresneriaren biltegiaren emakida, garbiketa-tresnen eta neguan udal toldoen biltegi gisa erabiltzeko.

## 6. GUZTIRA OKUPAZIOA

Laburbilduz, 2026, 2027, 2028 eta 2029ko hondartzetako lau denboraldi hauetan ustiapen ekonomiko bat duen zerbitzu bakarra toldoarena da. Honek hartuko duen azalera osoa 527ko dela.

Surf eskolek egiten duten okupazioa ez da kontuan hartu eskaera honetan, urte guztiko okupazioa duenez, dagokion eskaera baitu.



Goian aipatutako zerbitzu guztiak kontuan hartuz gero, hareatzaren guztizko okupazioa **948,5 m<sup>2</sup>**-koa da.

- Toldoa zerbitzua: 527 m<sup>2</sup>
- Sorospen zerbitzua: 23,5 m<sup>2</sup>
- Dutzak: 10,0 m<sup>2</sup>
- Pasarelak: 148,0 m<sup>2</sup>
- zakarrontziak: 16,0 m<sup>2</sup>
- Kirol gunea: 224,0 m<sup>2</sup>

Ikusi erantsitako planoan, (I. eranskina) aipatutako elementu guztien kokapena.

Okupazioa dakarten instalazio guztiak Udal honek edo bere esleipendunek jasoko dituzte, dagokion uda denboraldia amaitu eta hurrengo hamar egunen barruan.

## **7. DEBAKO HONDARTZAKO ZERBITZUAK USTIATUKO DITUZTEN PERTSONEN ZERRENDA,**

### **- 7.1. Toldo zerbitzua**

Aurtengo esleipenduna: gaur egun esleitzeko dago.

Ustiapen denbora: gehienez ere, luzapenak barne, 2029ko denboraldira arte izango da.

Kontraprestazio ekonomikoa: zehaztu gabe dago. Iaz 400 € izan zen 2025eko lizitazioan ezarritako kanona.

Iazko esleipenduna Koldobika Fuentes Puente izan zen. Eta urte batetarako egin zen zerbitzuaren esleipena. Toldoak udalarenak izanda zerbitzua esleitu zen lehen urtea izan zen. Aipatutako esleipendunak 2025eko denboraldi bukaeran aurkeztutako datuen arabera, hurrengo izan zen zerbitzu horren azterketa ekonomiko-finantzarioa:


- a) Diru-sarreraren zerrenda: toldoak alokatzeari buruzkoak: 37.520 €
- b) Gastuen zerrenda: udalaren kanona, langileak, aholkularitza: 34.494 €
- c) Errentagarritasun garbia: 3.026 €

Kontuan izan toldoen jabea Udala dela eta azken honek egin dituela hauen mantenua, konponketa eta inbertsioa.

## 8. SASOIAN HONDARTZA USTIATZEKO HAREATZAN EGIN BEHARREKO EGOKITZAPENAK

Neguan Itsasoko denboraldiek bi hondartzen perfilazioa guztiz aldatzen dute. Gehienetan goiko zatian hondarra pilatzen da eta aldapatxo bat sortzen da area lehorra eta bustiaren tartean. Honakoa, Santiago hondartzaren ekialdean gehiago nabaritzen delarik.

Bestalde, hondartza ondoan dagoen parkineko euri-urek Santiago hondartzaren ekialdean, ubide moduko bat sortzen dute, eta gune horretan itsasoko denboraldiek sortarazten dutenarekin, menditxo bat sortzen dute goiko partean, beheko argazkietan Ikus daitekeen bezala.




Beraz, udan Santiago hondartza erabiltzaileentzat ahalik eta irisgarriena eta erosoena izan dadin, eta udal zerbitzuak modu egokian eskaini ahal izateko, batzuetan beharrezkoa izango da denboraldia hasi baino lehen hondartza birprofilatzea.

Beraz, Udalak, eskaeran jasotzen diren urteetan, III. eranskinean jasotzen diren birprofilatze lanak egingo ditu, hondartzaren egoerak (harearen kokapena) maiatzaren hasieran hala eskatzen badu. Betiere honen bitartez eskatzen den Eusko Jaurlaritzako Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren Zuzendaritzaren baimena lortu ondoren.

## 9. ERANSKINAK

- I. Okupazio planoak
- II. Argazki erreportaia
- III. Nibelatze eta egokitze lanak:


Deban, sinaduran zehaztutako datan

 2026.01.22  
09:08:01 +01'00'

Udal ingurumen teknikaria



### I.ERANSKINA: OKUPAZIO PLANOA



## II.ERANSKINA. ARGAZKI ERREPORTAIA

### Toldo zerbitzua:



*Irudia 1. Hirugarren taldeko toldoak*




*Irudia 2. Toldo egokituak*



DEBAKO UDALA

Exp. 2025MHON0001

### **Pasarelak, dutxak eta oinar garbitzekoak**



*Irudia 3. Erdiko Pasarela luzea*



*Irudia 4. Sarrera nagusiko oinak garbitzeko*



*Irudia 5. Sarrera nagusiko dutxa*

## Sorospen zerbitzua



*Irudia 6. Sorospen etxola*



*Irudia 7. Zaintza-dorrea*

**Kirol-gunea**



*Irudia 8. Kirol gunea*

**Bestelakoak**



*Irudia 9. gaika jasotzeko edukiontzia arranpala*

### III.ERANSKINA. NIBELATZE ETA EGOKITZE LANAK

#### 1. Lanen deskribapena:

- Maiatzaren erdialdean egin beharreko lanak izango dira, kontuan hartuta aldi horretan mareek duten egoera onena (goizean marea behera).
- Santiago hondartzan perfil egokia lortzea.  
Harea-masa hondartzaren goiko aldetik behera mugitzea, berdinketa homogeneoa bermatu arte, hondar sikua eta bustiaren arteko aldapa saihesteko  
Eta ekialdeko goiko aldean, euriteek sortzen duten ubidea eta menditxoak desagertaraziz.
- Hondartzetako azpiegiturak kota egokian mantentzea.
- Hondarraren galera saihestea.

Lanak etengabe antolatu eta gainbegiratu ditu udal bulego teknikoak, eta lanak behar bezala egiten direla ziurtatuko du:

Atzerako hondeamakina (retroexcavadora) hondar kopuru handiak irauliko ditu, eta bulldozerrak hondar gehiegi dagoen eremuetatik hondar gutxien dagoen eremuetara eramango ditu, hondartza homogeneo bat geratu arte.

#### 2. Erabiliko den makinaria

Udalak lan hauek egiteko gai hauetan aditua den enpresa bati esleituko dio. Enpresak, atzerako hondeamakina (beheko argazkia) bat erabiliko du gehien bat, baina baliteke bulldozerra ere erabiltzea.



Behar den perfilazio maila oso txikia bada, baliteke aldapa kentzeko lanak Aldundiko makinak egitea. Urte osoan hondartza garbitzeko erabiltzen den makinaria bera erabiliz..

#### 3. Lanak burutuko diren datetan.

Udalak kontratatuko lituzkeen zerbitzua, 4–5 lanegunak izango ziren gehienez, goiz eta arratsaldean.

Lanak maiatzean egitea aurreikusten da. Kontuan hartu behar da hondartzak prestatzeko eta egokitzeke beste lan batzuk berdinketaren ondoren egiten direla, hala nola dorretxoak eta

dutxak hareatzetan instalatzea. Hau da, lur-berdinketaren atzerapenak gainerako prestaketak berandu amaitzea eragingo luke.

Zehaztutako jardunaldi kopurua hainbat faktore baldintzatzaileraren mende daude, hala nola faktore logistiko, eta atmosferiko. Neguan gertatutako klimatotogiaren eta itsas korronteen arabera, nibelazio ekipoei hondar bolumen handiagoa edo txikiagoa mugituko dute beharren arabera.


#### 4. Mugitu beharreko hondar bolumena

Lehen aipatutako aldagaiak kontuan hartuta, mugitu beharreko metro kubiko hondarren aurreikuspena kalkulatzeko, azken urteotan mugituko kopurua hartuko da kontuan. Tontorra egin den lekutik, ubidea edo haren ingurura mugituko da hondarra, gehienez metro bateko sakoneran.

Hondar lehor eta itsasoa batzen diren tartean sortzen den aldapatxoa kentzeko, hondartzaren 160 metro inguru hartu dira kontuan (hondartzaren erdia) hondartzako 40 metroko zabaleran eta 1 metroko desnivela kalkulatu da. Beraz 6.400 m<sup>3</sup> hondartza birperfilatzeko

Eta azken aldiak sortzen ari den menditxoa ezabatzeko hondar-masak 2000 m<sup>3</sup> ditu, sakoneran metro bat hartuta.

**Guztira 8.400m<sup>3</sup>** inguru mugituko direla estimatzen da.



Goiko argazkian hesiek harea lekualdatzeko norabidea adierazten dute.

#### 5. Aurrekontuak



DEBAKO UDALA

Exp. 2025MHON0001

Goian aipatutako lanak egiteko 3.700 €ko + beza aurrekontua dugu (2025). Udalak ordainduko lituzke lan horiek.